


Euskal AEko eraikuntzako kostuak % 1,2 igo ziren 2020ko urtarrilean aurreko hilabetearekin alderatuta

Aurreko urtearekin, hau da, 2020ko urtarrila 2019ko urtarrilarekin, alderatuta, kostuek % 2,3 egin zuten gora

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizea % 1,2 igo zen 2020ko urtarrilean, aurreko hilabetearekin alderatuta; hilabete horretarako urte arteko tasak, berriz, % 2,3 egin zuen gora, Eustatek emandako datuen arabera.



Aurreko hilabetearekin alderatuta, eskulanaren kostuak % 1,8 egin zuen gora eta lehengaien kostuak % 1,0.

Urtarrilean, Etxegintzako azpisektoreak % 0,9ko hilabete arteko igoera izan du lehengaien kostuan, eta Obra Zibileko azpisektoreak, berriz, % 1,2ko igoera. Urte arteko bilakaeran, bi azpisektore horiek zeinu positiboa dute bi kasuetan; izan ere, Etxegintzako lehengaien kostuak % 2,2 igo dira, eta Obra Zibilekoenak, berriz, % 3,8.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioek igoera handienak izan zituzten 2020ko urtarrilean, 2019ko urtarrilarekin alderatuta, honako sektore hauetan: *Petrolioia fintzea* (% 5,9), *Mineral ez-metalikoak* (% 5,5) eta *Material elektronikoa* eta *Zur-industria* (biek

% 2,7). Aitzitik, lehengaien prezioetan beherakadak izan dituztenak honako hauek dira: *Metalurgia*, % 1,4 jaitsi dena; *Industria kimikoa*, % 1,0 jaitsi dena; eta *Altzarien fabrikazioa*, % 0,2 jaitsi dena.

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2020ko Urtarrila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	106,5	1,2	2,3	1,2
Eraikinak	106,3	1,2	2,1	1,2
Obra zibila	107,3	1,3	3,3	1,3
LEHENGAI	106,0	1,0	2,5	1,0
Eraikinak	105,7	0,9	2,2	0,9
Obra zibila	107,1	1,2	3,8	1,2
LAN-ESKUA	108,2	1,8	1,8	1,8

Oinarria 2015=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62